

Donostia'n Ekauta'ren Jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta boskarren urteko Iraila'ren ogetazortzi'an, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Etxaide, Irigaray ta Oleaga jaunak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra.

Asten da araudizko otoitzaz ta urrengo lenaurreko batzarra'ren agiria irakurten da, ao batez onetsirik.

Gero Azkue jaunak irakurten dau "Algunas curiosidades lingüísticas o sea un complemento de la morfología" deritxon lan eder bat.

Erdere-euskera iztegia gertuten diarduen batzorde'ko euskaltzainak adierazoten dabe zertan daren euren lana, ta diño "A" izkiari dagokon atala amaituzat emon leikela, iztxo banaka batzuren utsa baino ezta-goala-ta. Iztxo oneek nola euskeratu daitezkezan itanduten dabe.

Gai au dala-ta Irigaray jaunak diño bere eretxiz, Lapurdi, Benabarra ta Zubero'ko euskalkien euskalariakin Euskaltzaindia bete arte, eleitekela ekin bear itz barriak atonduten, bestela jazo leitekela orain sorturiko itz barriak inguru areetan ontzat ez artzea eta beraz eginiko lana alperrikoa izatea; here aburuz, oraingoz, iztegi barri orren lana eleiteke besterik izan bear, ezagaturiko euskal-itzen erderapena atondutea baino, euskerazko itz ezagaturik eztauken erdal-itzak iztegian sartu barik. Urkijo jaunak bere, eretxi auxe agertzen dau.

Bestela Etxaide ta Oleaga euskaltzainak dinoe, geroagoan, orain sorturiko itz barriak aldatu ta zuzendu bearra balitz-bere, orainganik itz barriok asmatzea egoki izango litekela, euskeraz zelan esan leitekezan jakiten eziran erderazko itz asko dagozalako ta euskeraz idatzi nai dabena zelanbaiten lagundu bear litzakielako.

Batzuk eta besteok luzaro daragoioe eztabaida onetan. Erabagirik ezta artu.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

* * *

Bilbao'n mila bederatzireun eta berrogeta boskarren urteko Azila'ren cgetamarrean, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindiak il onero dagokon batzarra.

Arudizko otoitzaz asten da batzar au eta lenagoko batzarraren agiria irakurrita ao batez onesten da.

Urrengo Zamarripa jaunak dirakurz lantxo bi. "Pro-preposiciones" eta "Bertso-berriak" dira euroen izenak. Pozik entzun dira.

Gero Azkue jaunak irakurten dauz beste lantxo bi. Bata "Un caso curioso de epéntesis en nuestra numeración". Bestea "Algunas geminaciones que antes no se expusieron". Oneek bere, pozik entzun dira.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

* * *

Donostia'n, Ekauta'ren jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta-seigarren urtean, Urtarrila'ren ogetabost'an, Azkue, Urkijo, Etxaide ta Oleaga euskaltzain jaunak baturik, Azkue jauna maipuru dala, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra.

Asierea araudizko otoitzaz emoten jako.

Lenaurreko batzarra'ren agiria irakurten da gero. Ao batez onetsi da. Urrengo Azkue jaunak "Curiosidades lingüísticas" deritxon lan bat irakurten dau.